

EUOPAR BATASUNAREN FINANTZA LAGUNTZA JASO DUTEN AFAREN PROIEKTUAK

Proiektuaren izena: Hiri hondakinen konpostatze instalazioa Vitoria-Gasteizen.

Finantzatzen laguntzeko Europako programa: Kohesio Funtsa

Emandako laguntza: 2.527.310,00€

Egiteko epea: 2004/09/01-2006/09/30

Azalpena:

Arabako Foru Aldundiak, Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, proiektu bat jarri du abian, Arabako Lurralde Historikoan hiri hondakinak kudeatzeko. Proiektu horrek bi zati desberdin ditu: batetik, hiri hondakinak tratatzeko instalazio bat eraikitzea, udalaren ardurapekoa; eta, bestetik, hondakin horiek konpostatzeko instalazioa eraikitzea, Arabako Foru Aldundiaren ardurapekoa.

Beharrezkoa da instalazio hori eraikitzea, etxeko hondakinak deuseztatzeko gaur egun erabiltzen den sistemak, zabortegetan metatze kontrolatua eginez, ingurumen eragin handia sortzen duelako. Horrez gain, materialak eta energia alferrik galtzen dira, eta horiek funtsezkoak dira Arabako nekazaritzak jasaten duen materia organikoaren defizita arintzeko.

Bestalde, hondakinak deuseztatzeko egungo sistemarekin jarraitzen bada, ez dira beteko hondakinen isurketari buruzko Europako zuzentarauen helburuak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

http://europa.eu.int/comm/regional_policy/funds/procf/cf_es.htm

<http://europa.eu.int/scadplus/leg/es/lvb/l60018.htm>